

## ENE GIZON GEA

GRAXIANA  
KATIXA , auzoa  
IXTEFANA, ama  
MARIXAN, adixkidea  
MAIA, dendaria  
YAKOBE

ESKUAL-HERRIKO SUKALDE BAT

GRAXIANA bera

**GRAXIANA:** Hara, izkiriatu dut ene gizon geari; ene gizon gea... ba, badut gizon gea, baina nehorek ez daki, nik baizik... eta harek bixtan da. Nolakoa othe da? ez dut ezagutzen oraino. Zernahi gisaz ez da nornahi... Zer erranen othe du amak, jakinen duenean? emanen ahal dio, estakuru. Baina zer dakite xaharrek? heiek deneri lotsa, gazteak aldiz jeuseri, beraz jo aitzina. Khantuak ere ez daukua erraiten: (*Kantuz*): «Ez egin kasurik atsoen erraneri».

GRAXIANA eta KATIXA

**KATIXA:** Omere ona duxu Graxiana.

**GRAXIANA:** To, zu zinena, Katixa, sar zite.

**KATIXA:** Eta?... prest ditutxua?...

**GRAXIANA:** Zer?

**KATIXA:** Zer?... ene phorru-landareak.

**GRAXIANA:** Ah! arrunt ahantziak nintuen; badut bertzerik gogoan.

**KATIXA:** Eta itxuren arabera jeus gaixtorik ez.

**GRAXIANA:** Arras ez, gogoan dutana ona da, biziki ona, ezin hobea.

**KATIXA:** Gizon gei bat?...

**GRAXIANA:** Han zira: gizon gea eta nolakoa!

**KATIXA:** Kuriosegi ez baniz, nor duxu?

**GRAXIANA:** Ez dakit xuxen.

**KATIXA:** Ez dakin... eta nungoa da? zer ofizio du?

**GRAXIANA:** Horiek oro laster jakinen ditut; ez dut oraino xehetasunik.

**KATIXA:** Gaixo haurra! Zer deasazu? (*burua hunkiz*). Ez duxu ba sukarrik?

**GRAXIANA:** Ez, ez, Katixa, zaude gostuan; burrua fresko dut, bihotza dut bero.

**KATIXA:** Aah.

**GRAXIANA:** Yar zite, erranen dauzute nola gertatu den. Horra, irakurtu dut berrikerari batean haxet: «Gizon oraino gazte, familia haundi, arranda on, eta idaratzdun pollitak nahi luke ezkondu neskato ez lotsakor eta bihotz-dunarekin». Ihardetsi diot: «Ez naiz batere lotsakora, bihotz handia ere badut eta zuri idekiko dautzute zabal-zabala». Orduan igorri daut «laster jinen niz zure ezagutzaren egiterat esposa giten lehen bai lehen».

**KATIXA:** Zer den jakitatea!... Orain ezkontzak ere berrikerarietarik egiten dira.

**GRAXIANA:** Eta zer ezkontza?...

**KATIXA:** Ba, haundia; hola izkiriatzeko ari direnak ez dituxu segur nor-nahi.

**GRAXIANA:** Nik ere hori bera egiten dut.

**KATIXA:** Gure denboran ez zuxun holakorik, ez duxu haundi mutxurdi egon baniz.

Irakurtzen doi-doa zakixut, izkiriatzeko batere. Xu bezalakoez, ni mutxurdi egon

nizan tokian, kausituko zixien hamar gizon gei.

**GRAXIANA:** Baditake aise.

**KATIXA:** Zer den jakitatea!...

**GRAXIANA:** Jakitate horri esker, orai bihotza bozkariotan dut; ez baxharrik bizia bainan gauza guziak ederragoak ikhusten ditut: zerua urdinago, phentzeak pherdeago, loreak, aphainduago, xorien kantua xoragarriago, denak, hots!

**KATIXA:** Zoin ederki mintzo xiren, on xira, on xira, jaun aberatsarekin ezkontzeko. Jakitatea gauza ederra... Juhan nuxu; ez ahantz ene phorru-landareak.

**GRAXIANA:** Entseatuko niz.

#### GRAXIANA bera

**GRAXIANA:** Orai jua behar niz zalhu-zalhua, amak ikhusi gabe, bi lerro hauien heltzerat (*berriz ere khantuz soinekoa jauntziz*) «Segi, segi gure bizi moldeari».

#### GRAXIANA eta IXTEPANA

**IXTEPANA:** Norat ari haiz, Graxiana?

**GRAXIANA:** (*Durduzatua*) Ori... harat eta... eranen duta? Pranxinari dozena bat arroltzeren heltzerat.

**IXTEPANA:** Orai? Tenore huntan? Juanen haiz sari, ilhuntzean.

**GRAXIANA:** Ez, ez; zombait egun hauotan galdeginak dauzkit. Heldu niz laster (*jalitzen da*).

#### IXTEPANA baxharrik

**IXTEPANA:** Zer du haur hunek egun haukietan? Arras kanbiatua da: laneko funtsik ez, usu harat hunat eta bethi kantuz? Nik uste, etzi lehen auzoaren espos lagun behar delakotz, da holakatua. Gaztek guti aski alegeratzeko.

#### IXTEPANA eta MARIXAN

**MARIXAN:** Hor hiza Graxiana?

**IXTEPANA:** Zato aitzina, Marixan.

**MARIXAN:** Baxharrik zirea Ixtefana?

**IXTEPANA:** Graxiana orai orai jalia da, ez duziren elgar ikhusi?

**MARIXAN:** Ez, ni baratzeko jelatik sartu niz.

**IXTEPANA:** Eta hura aitzineko athetik jali; bainan jar zite, jinen da laster.

**MARIXAN:** Ez, ez dut aizaririk; egun hauetan bada egiteko hanitz gure etxen.

**IXTEPANA:** Alabainan, espos-bezperagoak egun kargatuak dire... bainan gero phausatuko zira. Izanen duzue langile bat ona, gehiago.

**MARIXAN:** Ba, egia duzu; Kayet gizon azkarra da eta burutakoa; atsegin dut etxearen segida holako lagunarekin hartzea.

**IXTEPANA:** Sinhesten dut, kanpo handiko horiek oro biziki plantakoak dira... Uste nien Kayet etxeke zela.

**MARIXAN:** Untsalaz ba; bainan hola gertatu da eta Xalbat da etxeke.

**IXTEPANA:** Hura ere, zer mutiko karana!

**MARIXAN:** Eta langilea! eta jarraikia! Ez du etxea errekaratuko. Harek ere nahi luke orai laguna hartu.

**IXTEPANA:** Ez dut urrikari izanen hautatuko diena.

**MARIXAN:** Ori, behar dautzut erran. Badakizu, nor dien begiz joa?  
**IXTEPANA:** Nor?  
**MARIXAN:** Zien Graxiana.  
**IXTEPANA:** Gure Graxiana kanpo handiko etxeko andere? Baditakea?  
**MARIXAN:** Ba, Xalbatek arras gogoan du; eta ene espos egunean elgarren lagun izanen baitira, nahi nuke Graxiana ere delibera dadin.  
**IXTEPANA:** Ez ahal du dudarik izanen.  
**MARIXAN:** Atsegin haundi nuke nik ere koinatzat banu. Nihaur bakharra, ahizpa egiazkoa bezain maite nuke.  
**IXTEPANA:** Harrek ere ba segur; jadanik ere aski elgarri atxikiak zirezte bi lehen auzoak.  
**MARIXAN:** Alpha zakozu beraz.  
**IXTEPANA:** Zaude gostuan, eta fida niz denak untsa juanen direla.  
**MARIXAN:** Hobe, beraz bihar arte, Ixtefana!  
**IXTEPANA:** Ba, gaixo Marixan, Jainkoak nahi badu.

#### IXTEFANA bera

**IXTEPANA:** Gure Graxiana kanpo handiko etxeko andere! baditakea? Ez dut asmatu holako etxean sar zitakeela... Zer erranen du hori jakitearekin? Behar bada Xalbatek jadanik zerbait erakusterat emana dio; hartako da nik uste egun hauetan holako bozkalentzian... segur segura.

#### IXTEPANA eta GRAXIANA

**IXTEPANA:** Hor hiza, Graxiana? Ikhusi duna Franxina?  
**GRAXIANA:** Ez atheratua zen.  
**IXTEPANA:** Eta arroltzeak?  
**GRAXIANA:** Gibelerat ekharri ditut.  
**IXTEPANA:** Batere behar gabe izan hiz. Ez dakin nor huts egin dunan?  
**GRAXIANA:** Nor?  
**IXTEPANA:** Marixan izan dun hi ikhusi nahiz.  
**GRAXIANA:** Zer du, zerbait esku-ukhaldi nahi?  
**IXTEPANA:** Ez ez; nahi zaunan erran Xalbat izanen hiela ezteietan laguntzat.  
**GRAXIANA:** Hori badakit.  
**IXTEPANA:** Eta harek ere baduela ezkontzeko xedea.  
**GRAXIANA:** ...  
**IXTEPANA:** Ez duna galdatzen norekin?  
**GRAXIANA:** Berdin zaut.  
**IXTEPANA:** Berdin! jakinen dukanean norekin, ez zaun ez berdin izanen hiri! Pensatzen din...  
**GRAXIANA:** Eni?  
**IXTEPANA:** Ikhusten dun; ez hien uste?  
**GRAXIANA:** Ez batere.  
**IXTEPANA:** Eta orai zer dion?  
**GRAXIANA:** Nik ez dutala haren gutziarik.  
**IXTEPANA:** Zer eraiten dun? Ez haren gutziarik? Baduna burutik?  
**GRAXIANA:** Den gutienik! Badut gizon gea hori ez bezalakoa.  
**IXTEPANA:** Hori ez bezalakoa? Behin holakoa... Nor dun gero delako gizon gei famatu hura?  
**GRAXIANA:** Familia handiko norbait.  
**IXTEPANA:** Nun egina dun haren ezagutza?  
**GRAXIANA:** Ba... ez dut oraino ezagutzen...  
**IXTEPANA:** Aah! Eta nungoa da? Nola du izena?

**GRAXIANA:** Ez dakit oraino xuxen.

**IXTEPANA:** Zer ditun enuxentkeria horiek? Gizon gea ez ezagutzen! Ez jakin ez izena, ez nungoa den! Amets egin dun, nik uste!

**GRAXIANA:** Ez batere, berrikeri batean ikhusririk haren galdea, izkiriatu diot; eta jin beharra da laster ene ezagutzaren egiterat, lehen bai lehen esposatzeko.

**IXTEPANA:** Horiek oro finkatu ditun hitzik erran gabe?

**GRAXIANA:** Ba; egiten bainuen zerbait traba emanen zinuela, ikhusten duzu zuhaurek hala-hala gerthatzen dela.

**IXTEPANA:** Bixtan dun! nola behar dut onhartu ene alaba ezkont dadin ezagutzen ez dugun nunbaitko gizon batekin? Jainkoak zakin zer den!

**GRAXIANA:** Aberatsa da.

**IXTEPANA:** Batere ez dakin! paperak ukhanak hartzen ditin. Eta izanik ere, ez dun sosa aski, bertze zonbat ez da: gizontasuna, errelisione, osagarri eta asko!

**GRAXIANA:** Jinen denean berak argituko gitu.

**IXTEPANA:** Fida ditakea arrotz baten erranari?

**GRAXIANA:** Gero galdatuko ditugu bertzalde xehetasunak.

**IXTEPANA:** Eta artean Xalbat gal! Hatxemanen din aise hi bezelako lili bat!... Ah! Graxiana, ez utz eskuko xoria airekoarentzat. Eta zer xoria! muthiko propia, azkarra, langilea eta duna eta nolako ohantzea! etxe—leiho eder, bazter zabal, lur gizon, tresna mota guziak bai barnean bai kanpoan lanen aise egiteko! Zer haur hazteko tokia!... Ez dun ez, bertze holakorik izanen.

**GRAXIANA:** Hor ez bezalako bizia iraganen dut hirian.

**IXTEPANA:** Ago, othoi, ixilik! Han ere ditun ez, xuri guziak esne. Juan zunan Xopikundeiko Maider ere hirirat, erranez abanteil gaitzak izanen zituela; eta denbora laburrik barne, izkiriatu zinan etxeko bidexka horriek ere orhoitzen zela.

**GRAXIANA:** Horrek ez du deusik erran nahi. Bixtan zen, zor-nahi jaliko ziniela, ezkontza horren ez onhartzeko.

**IXTEPANA:** Gaixo haurra! Sinhets nezan, othoi! Nehorek ez hu amak baino hobeki ikhusi nahi... hola mintzo baniz, hire onetan ari nun.

**GRAXIANA:** Bainan, zuk zer dakizu oraiko molde berrietan?

**IXTEPANA:** Lehen eta orai, gauza horiek bethi bardin ditun, gaztek ez uste izanik ere. Jar hadi eta adi nezan: ni ere denboran ezkondu nahi izan nindunan muthiko eder ez-deus batekin. Amak erran zautanan edertasuna ez zela ez janhari ez edari eta hobe niela hartzea Petrikundeiko Manex hire aita. Ama sinhetsi ninan, eta ez zautan behinere dolutu.

**GRAXIANA:** Ez da berdin; ez da batere errana, ene hau ez-deusa dela.

**IXTEPANA:** Ez dakin; behar bada, ariagokoa!

**GRAXIANA:** Utz nezazu nahi dutanaren egiterat!

**IXTEPANA:** Ez; ez haut utziko... Hik uste ditunan abanteil guziak balitu, kausituko zinan emazte bere ingurietan, berrikeriaren medioa galderik egin gabe. Ene baia ez dun izanen!

**GRAXIANA:** Eta nik, ez dut Xalbat hartuko! Ez niz ezteietarat joanen.

**IXTEPANA:** (*eztiki*) Ikhusiko diun! Uzten hait ixtant bat; egizkin phensaketak, nik Elizako itzuli bat egiteko artean (*khartsuki*). Ah! Jainko maitea, emazu othoi zentzu poxi bat ene haur huni!

GRAXIANA bera, nigarrez

**GRAXIANA:** Horra ama nolakoa den... Segur nintzan ez ziela onhartuko ene gizon gea bainan, harek nahi ala ez, hartuko dut.

## GRAXIANA eta MAIA

- MAIA:** Ekhartzen dautzut Graxiana ezteietako zaia. Biziki pollita da; hau soinean, izanen duzu arrakasta.
- GRAXIANA:** Ez dut batere horren beharrik, ez niz ezteietarat joanen.
- MAIA:** Zer duzu? Marixanekin samurtu zirea?
- GRAXIANA:** Ez, amarekin; ez du onhartu nahi ene gizon gea.
- MAIA:** Ah! baduzu gizon gea? nor duzu?
- GRAXIANA:** (*berriketari kanteil bat sakelatik jaliz*) Ori irakur azu.
- MAIA:** (*irakurtuz ixilik*) Iduritzen zaut ez dela nor-nahi... Eman duzua segida?
- GRAXIANA:** Ba; eta haren beha nago undar xehetasunen ahoz egiteko; bainan amak ez du fritsik aditu nahi.
- MAIA:** Zer nahuzu xahar guziena da: deuserik ez jakin, deneri lotsa eta bethi mintzo.
- GRAXIANA:** Ni aldiz ez niz lotsakorra; eta, ikhusi duzu, halakoa galdatzen du.
- MAIA:** Zertako othe?
- GRAXIANA:** Nik uste erabiltzeko airez, aire, edo untzi haundietan, itsasoan barna mundu zabaleko bazterren ikhusten.
- MAIA:** Baditake aise; jende haundi horiek ardura pirayan dabilta.
- GRAXIANA:** Eta eni hori gustatzen... Ez duzua bada uste bizi molde hori alegerago izanen dutala, ezin zokho huntan bethi tokiaren gainean.
- MAIA:** Denotan badira on-gaitzak; bainan ene kontseiluarekin ez utz padara hori. Ni bethi lotsakor izan niz, hau pisa, hura pisa eta hola denbora juan zaut. Orai baditut berrogoi-ta-bortz urthe eta bakharrik niz. Ez zen bardin izanen, ukhan banitu zonbait haur ene ingurian; bizia alegerago izanen nuen.

## Berak eta YAKOBE

- YAKOBE:** Barkamendurekin hau dea Graxiana Petrikundeikoaren etxea?
- GRAXIANA:** Ba, eta ni niz Graxiana.
- YAKOBE:** Aah! Zu zira beraz berriketariaren medioz ezkontzerat abiatua.
- GRAXIANA:** Hura bera. Zer zaitu ene gizon geak igortzen? ezagutzen duzu beraz?
- YAKOBE:** Ezagutzen dut ba, untsa ezagutzen.
- GRAXIANA:** Gisa hortan emanen daitazu ohehetasunak?
- YAKOBE:** Nahi ditutzun guziak.
- GRAXIANA:** Hobe, nahiago ditut aitzinetik jakin. Zer gizon da?
- YAKOBE:** Gizon ona, haren xede guzia da zure urus ezartzea.
- GRAXIANA:** Ez nion bertzerik pensatzen; nik ere ene phartetik eginen ditut egin ahal guziak.
- YAKOBE:** Beraz denak untsa joanen dira.
- GRAXIANA:** Errazu eta... Elizako urhatseri jarraikia da dudarik gabe?
- YAKOBE:** Ah! hori ba! fede gaitza.
- GRAXIANA:** Osagarriz nola da?
- YAKOBE:** Untsa arras untsa, goizetik bethi kanpoan, ofizioak hala nahi duelakotz. Sartzean idarazi guziak alzorat emanen daizkitzu.
- GRAXIANA:** Eta familia?
- YAKOBE:** Haundia, jadanik aiphatu bezala.
- GRAXIANA:** Zure erranen arabera, iduritzen zaut hartzen ahal dutala.
- YAKOBE:** Bi begiak hetsirik; ez duzu senhar hoberik kausituko.
- GRAXIANA:** Zoin ikusi nahia dutan!... Noiz jinen da ene ezagutzaren egiterat?
- YAKOBE:** Hemen da zure aitzinean... Ni naiz.
- GRAXIANA:** Zu?
- YAKOBE:** Ba; eta ikusten dut zer neskato plantakoa izanen dutan emaztetzat! Gaztexkoa, bainan gaitz hortarik egun guziez sendatzen ariko da.

**GRAXIANA:** Ni zure emazte?

**YAKOBE:** Ez girea hala hitz hartuak?

**GRAXIANA:** ...

**YAKOBE:** Orai artino loriatua zinen. Zer duzu bet-betan lotsa hori?

**GRAXIANA:** ...

**YAKOBE:** Alo Graxiana, errazu zer bait... Iklusiko duzu zer bizi goxoa eginen dautzutan.

**GRAXIANA:** ...

**YAKOBE:** Ez duzua deuserik urraiten? Zer zira mututu?

**GRAXIANA:** Ez nien uste holakoa zinela.

**YAKOBE:** Nolakoa bada?

**GRAXIANA:** Aiphatzen zinien familia haundia eta.

**YAKOBE:** Ah ba! Alharguna niz; eta hemen dut ene familia, zuri erakusterat ekarria: on dut segurki agertzeko. (*Kanpoari buruz*). Zatozte, zatozte, horra Margaita, Luixa, Gilen, Ttotte, Benat eta Kattina. Ez duta familia haundia?

**GRAXIANA:** Hori zen beraz aiphatzen zinuen familia haundia?

**YAKOBE:** Segurki, ez dea hala? eta ez bazautzu aski haundia, gero jinen direnek haundituko dute oraino. Alo! emazue potta zien ttantta berriari!

**GRAXIANA:** Ez, ez, ez niz horien ttantta; ez izanen ere.

**YAKOBE:** Zer duzu? gibelerat egiten? Ez zinela lotsakorra, eta jadanik lotsatua... Nun duzu bihotz haundi zabal-zabala idekitzen zinautana? Uste nuen han, gu denek tokia izanen zela...

**GRAXIANA:** ...

**YAKOBE:** Alo! Graxiana, behar nuzu lagundu haurño haukien alxatzen. Nola nahuzu gizon xoil batek egin ditzan?

**GRAXIANA:** Zuhaurrek erraiten zinien oixtian, gaztekiko nintzela. Hala niz hoinbertze haurren amagizun jartzeko.

**YAKOBE:** Ez dut beraz menturarik?

**GRAXIANA:** Kausituko duzu bertze norbait ni baino gisago.

**YAKOBE:** Giza gaizo Yakobe Xorroxtailea! Norat behar hiz berriz apailatu?

**MAIA:** Zer zira, Yakobe Xirrix-Xorrotza, Margaita Buztin zenaren alharguna?

**YAKOBE:** Hura bera! Ezagutzen ziniena ene Margaita gaixoa?

**MAIA:** Aise! ene koinataren anearen emaztearen illoba zen.

**YAKOBE:** Beraz jenderen jende zinezten.

**MAIA:** Ba; eta elgar ikusten ginien artetan ene koinataren anearen etxen. Zer emazte alegera! Ez zien bi sotesan saltzekoa bere Yakobe.

**YAKOBE:** Zu, nor zira bada?

**MAIA:** Maia dendaria.

**YAKOBE:** Badut aditzea. Nor da zure senharra?

**MAIA:** Ez niz behinere ezkondu: gazte ez deliberatu, eta denbora jua.

**YAKOBE:** Ori, ez baita behinere berahtegi untsa egiteko, nahi duzua elgarrekin egin gaiten?

**MAIA:** Bardin; hola elgar akomatuko dugu; lagunduko zaitut haur multxo hunen alxatzen, eta nik izanen dut familia ina prest.

**YAKOBE:** Oro elgarrekin gostuan biziko gira; hauen arranda eta ene ofizioarekin ez dugu deuseren eskasiarik izanen.

**MAIA:** Ni dendaria bainiz ezarriko ditut haurño hauk panpinak iduri.

**YAKOBE:** (*haurreri buruz*) Beraz, orai hori izanen da zien ttantta.

**MAIA:** Gaixo haurrak, zatozte, egun goitirik gosetuak zirezte; emanen dauzuet moleta handi bat, zafla eder banarekin.

**YAKOBE:** Ez dut ene piraya galdu.

**MAIA:** Goazen beraz. Ez adiorik, Graxiana! Ez nien pentsatzen sartzean zure gizon-gea enea izanen zela atheratzean.

**GRAXIANA:** Ez nik ere; bainan denak untsa akabatu dira.

**YAKOBE:** Zoin hobeki.

## GRAXIANA bakarrik

**GRAXIANA:** Hauxe da gertakaria! Hori behar zen bururatu! Delako familia haundia zer zen? Haur multxo bat; eta arranda azkarra? Haurren arranda... Hortarik nik abanteil guti; berek aise klikatuko dute... Halare ama ez zen hemen! lore izanen zen! Xaharrek ere badute ba, ikhusiaren bortxan zerbait ikasirik... badut beldurra gutiz gehienetan, gazten espantuari nagusi dela den heien zentzua... Hea! eman dezagun orai behako bat delako zaia pollitari!

## GRAXIANA eta IXTEPANA

**IXTEPANA:** Nun hiz, Graxiana? Haugi hunat! behar dainat erran oraino zonbait gogoeta sarkor.

**GRAXIANA:** Ez du balio, ama. Egin ditut pensaketak, eta iduritzen zaut hobe dutala Xalbaten hartzea.

**IXTEPANA:** Dударik batere gabe! Egiten ninan ba, eroriko hintzala amaren erranerat; eta ez zaun dolutuko!

Mayi ELISSAGARAY